

XXV. ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA ARAUDIA

1. Data eta lekua	XXV.en Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia maiatzaren 17an ospatuko da Zegaman (Gipuzkoa) eta irteera goizeko 9:00etan izango da.
2. Ibilbidea	Proba, Aizkorri mendizerraren bi isurietatik iragaten da. 42,195 kilometroko luzera du eta metatutako desnibela 5.472 metrokoa da. Neurketak EMFko eta FEDMEko teknikariek homologatu dituzte.
3. Puntuagarria	Golden Trail World Series 2026 -rako puntuagarria izango da.
4. Partehartzea	18 urtetik gorako atleta , mendizale eta kirolari guztiek dute proban parte hartzeko aukera, arautegi honetan adierazitako guztia onartu eta zehaztutako baldintza guztiak betetzen badituzte behintzat.
5. Mailak	(proba ospatzen den egunean duten adina) Gizonezkoen maila Seniorrak: 18-40 urte bitartekoak Beteranoak: 40 urtetik gorakoak Emakumezkoen maila: Seniorrak: 18-40 urte bitartekoak Beteranak: 40 urtetik gorakoak
6. Izen-ematea	Aurre-inskripzio epea Urtarrilaren 12tik 23ra izango da eta 1€ko kostua izango du. Dortsalen zozketa Otsailaren 20an egingo delarik.
7. Prezioa	Kuota 75€koa da eta zenbateko honek zera bermatzen du: proban parte hartzeko eskubidea, erantzukizun zibileko aseguruua eta ezbeharretakoa, antolakuntzak parte-hartzaileentzako atondutako zerbitzuak erabiltzeko eskubidea, oroigarri bat eta antolakuntzak probarako lor ditzakeen sarien zozketan parte hartzeko aukera.
8. Seinaleztapena	Ibilbidea behar bezala seinalizatuta egongo da, kartel adierazleekin eta ageriko baliza-zintekin . Kilometro-erreferentziak ibilbide osoan zehar jarriko dira.

XXV. ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA ARAUDIA

9. Kontrolak	Probaren luze-zabalean antolakuntzak 13 kontrol-gune jarri ditu eta berauetatik pasatzea ezinbestekoa izango da, gune hauetan egingo baitira erregelamenduzko igarotze-kontrolak.															
10. Hornidura	13 postu atonduko dira helmugakoaz gain. Postu hauetan produktu energetiko eta freskagarriak eskainiko zaizkie parte-hartzaileei (ura, fruta, barrak, edari energetikoak e.a.).															
11. Igarotze denborak	<p>Korrikalariak, gehienez ere, 8 ordu izango dituzte helmugara iristeko eta, hau horrela, denbora gainditzen duten parte-hartzaileek behin-betiko sailkapenean agertzeko aukera oro galduko dute.</p> <p>Edonola ere, antolakuntzako arduradunek korrikalariak probatik baztertzeko ahalmena izango dute ondorengo kasu hauetan: igarotze-kontrol ezberdinetan egitea espero den denborak betetzen ez dituztenean, probako arauak hausten dituztenean, ezarritako ibilbideari zehatz-mehatz lotzen ez zaizkionean, erregelamenduzko dortsala ondo ikusteko moduan ez daramatenean, antolatzaileek esandakoari jaramonik egiten ez diotenean edota gainontzeko korrikalarietako kiroltasunez jokatzeko ez dutenean. Xede hauetarako, probaren amaiera adieraziko duten bi korrikalarien parte-hartzea aurreikusten du antolakuntzak. Baztertua edo kanporatua den parte-hartzaile orok gertuen duen kontrol gunean eman beharko du bere dortsala eta antolatzaileek agindu bezala utzi beharko du proba.</p> <p>Igarotze denbora GUZTIAK</p> <table style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <thead> <tr> <th style="width: 30%;"></th> <th style="width: 35%; text-align: center;"><i>DISTANTZIA</i></th> <th style="width: 35%; text-align: center;"><i>DENBORA MUGA</i> <i>(irteeratik)</i></th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td style="text-align: center;"><i>Zegama-IRTEERA</i></td> <td style="text-align: center;">0km</td> <td style="text-align: center;">09:00</td> </tr> <tr> <td style="text-align: center;"><i>Ultzama</i></td> <td style="text-align: center;">8,7km</td> <td style="text-align: center;">10:25 (1h25)</td> </tr> <tr> <td style="text-align: center;"><i>Atabarreta</i></td> <td style="text-align: center;">13,5km</td> <td style="text-align: center;">11:20 (2h20)</td> </tr> <tr> <td style="text-align: center;"><i>Aratz</i></td> <td style="text-align: center;">16,1km</td> <td style="text-align: center;">12:00 (3h)</td> </tr> </tbody> </table>		<i>DISTANTZIA</i>	<i>DENBORA MUGA</i> <i>(irteeratik)</i>	<i>Zegama-IRTEERA</i>	0km	09:00	<i>Ultzama</i>	8,7km	10:25 (1h25)	<i>Atabarreta</i>	13,5km	11:20 (2h20)	<i>Aratz</i>	16,1km	12:00 (3h)
	<i>DISTANTZIA</i>	<i>DENBORA MUGA</i> <i>(irteeratik)</i>														
<i>Zegama-IRTEERA</i>	0km	09:00														
<i>Ultzama</i>	8,7km	10:25 (1h25)														
<i>Atabarreta</i>	13,5km	11:20 (2h20)														
<i>Aratz</i>	16,1km	12:00 (3h)														

XXV. ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA

ARAUDIA

	<i>Sancti Spiritu</i>	19,6km	12:15 (3h15)
	<i>Aketegi</i>	23,2km	13:30 (4h30)
	<i>Oltze</i>	26,6km	14:25 (5h25)
	<i>Urbia</i>	28,5km	14:50 (5h50)
	<i>Itzubiaga</i>	32,3km	15:30 (6h30)
	<i>Moano</i>	34,2km	16:00 (7h)
	<i>Oazurtza</i>	37,8km	16:30 (7h30)
	<i>Zegama- META</i>	42,195km	17:00 (8h)
12. Sariak	Ikusi sariak atala.		
13. Sailkapenak	Sailkatzen diren korrikalari guztiek puntuatuko dute Golden Trail World Series-etarako.		
14. Bilera informatiboa	Antolakuntzak probaren iraganbide ezberdinei buruzko informazio topografikoa eta antolaketari buruzko xehetasun garrantzitsuenak ezagutarazi eta eskainiko ditu aurkezpen bilera batean. Aurkezpena Zegamako Eskolako patioan egingo da proba ospatu bezperan, hau da, 2026ko maiatzaren 16an, arratsaldeko 18:00etan. Oso garrantzitsua da parte-hartzaileak bilera honetan esandakoen berri izatea.		
15. Dortsalen banaketa	Larunbatean 17:00-19:00 bitartean eskolako gimnasioan eta igandean 07:00-08:30 bitartean elizako arkupeetan jaso ahal izango dira dortsalak. Dortsala soilik jabeak jaso ahal izango du bere identifikazioa erakutsiz.		
16. Ingurumena	Lasterketa, bere zatirik handienez, edertasun natural handiko parajeetatik igarotzen da eta, hau horrela, ingurunea ahal beste zaintzeko eta zaborrak kontrol-guneetatik kanpora ez botatzeko eskatuko zaie partehartzaile guztiei. Xede horrekin zabor-kontenedoreak ere ezarriko dira kontrol-guneetatik 100 metroko distantzia arte.		

XXV. ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA ARAUDIA

	Oinarri-oinarrizko arau hau betetzen ez duen korrikalari oro probatik kanpora utzi ahal izango da.
17. Osasun-Laguntza	Antolakuntzak sorospen eta salbamendu-zerbitzuak atonduko ditu ibilbideko puntu estrategikoenetan. Era berean masaje-zerbitzuak, dutxak, komuna eta aparteko beharren bat duten edota ondoezak jota iristen diren kirolariei aurreneko laguntza emango dieten medikuak ere izango dira helmugan.
18. Segurtasuna	Antolakuntzak, aurretik Lasterketako Batzordearekin hala adostuz gero, proba ordezkoko ibilbidetik desbideratzeko, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko eta, eguraldiak hala eskatzen badu, maratoia bertan behera uzteko eskubide osoa izango du.
19. Laguntza ezbeharretan	Parte-hartzaileek betekizun izango dute istripuren bat izan duen edonor laguntzea eta kontrol-guneetan edozein ezbeharren berri ematea.
20. Erantzukizuna	Antolakuntzak erantzukizun oro ukatuko du istripuren bat gertatuz gero edota zabarkeriaz jokatzeko bada; eta baita parte-hartzaileen objektu pertsonalei dagokienean ere, xede horrekin kontsigna-zerbitzu bat izango baita helmugan bertan. Horrela bada, parte-hartzaileek izango dute euren buruari edota hirugarren pertsoneri eragindako kalte ororen erantzukizuna .
21. Derrigorrezko materiala	Parte hartzaileek derrigorrezkoa dute lasterketak irauten duen denboran zira bat eramatea, hornidura likidorako edalontzia eta baita manta termikoa ere. Antolakuntzak parte-hartzaile batzuei dortsal bikoitza eta GPS gailua ematen badizkie, nahitaez eraman beharko da.
22. Osasun politika	<u>QUARTZ</u> ekitaldi programaren barruan gaude osasuna babestu eta kirol libre bat laguntzeko. Parte hartzaile guztiek onartzen dituzte <u>programako arauak</u> izena ematean.